

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko uztailak 17 - 1404 zenbakia



ESKUALDEKO JAIEN TAUPADAK

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontizian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Abuztuan ere **ZABALIK**

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



www.etakitto.eus



Ezagutu Gazte Kide proiektua, Eibarrera iritsitako gazte etorkinei harrera egiteko eta herrian integratzen laguntzeko jaiotako ekimena. Honen bidez, kirolak eta arteterapiak duten indarra aztertzen dugu. Marta Lores arduratu da Gazte Kide proiektua koordinatzeaz eta Maite Arriagak gidatu die gazteei arteterapian.

eta kitto!
euskara elkartea



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Datorren asteko alea, ikasturteko azkena

Datorren barixakuan, hilaren 24an, kaleratuko dugun alea ikasturteko azkena izango da. Beraz, kontuan izan edozein informazio kaleratu edo berriren bat argitaratzeko asmoa baduzue, hala nola, zorion-agurrak, eskelak, iragarki laburrak...

Erredakzioa

Hortik esanak



Gure etxean gauza bat oso argi zegoen: eskolan ondo ibili behar zen. Eta ahal bazen, nota onekin. Gaztelanian, ordea, ez zegoen halako exijentziarik. Horrek ez zion inporta handirik gure aitari. Erdara erakusteaz gizartea arduratuko zen. Kaleak emango zigun klasea. Telebistak errefortzua. Administrazioak azterketa. Eta polizia ahazko frogia.

Euskarari, zero. Halaxe ateratu dute ikasle askok UsaPen. Eta ez dirudi mundua erori zaienik. Ez dira asko penatu. Zergatik penatuko dira, gizarte osoak esaten badie euskarak ez duela hainbesteko garrantzirik?

Euskaraz egiten baduzu, askok haserretik erantzuten dizute. Mesprexutik. Ez dizute ulertzen. Edo ez dizute ulertu nahi. Hobe gure txokokeriak ahaztea. Gure txokokeriak. Gure hitz arraroak. Gure ñabardurak. Gure herri txiki eta tematua. Zertarako behar ditugu bi hizkuntza, batekin moldatzen bagara? Espainolez egitea modernoa da. Praktikoia. Natural-naturala. Algoritmikoa.

Lehen hizkuntza zapalkuntzaz hitz egiten genuen, eta orain eleaniztasunaz hitz egiten dugu. Gurea herri menderatua da. Asimilatua. Ez gara desagertu. Ez guztiz. Hemen gaude, baina barkamena eskatzen bezala.

Eta horregatik, kontua ez da ikasle batzuek euskarari zero ateratu. Kontua da gizarte oso batek zer nota jartzen dion euskarari egunero.

Euskara ez da ikasgai bat. Ez da batez besteko nota igozteko aukera bat. Ez da ahoan trabatzen den aditz-taula bat. Euskara hemen egoteko modu bat da. Munduan egoteko modu bat. Eta zeroa ateratzen dutenean, agian ez dute ikasle batzuek bakarrik suspenditzen.

Ez da epaile eta poliziek soilik zapaltzen gaituztela. Egunerokotasuna da itogarria hemen. Autopsiaren frogak nonahi topatu daitezke. Eta hala ere, ikasleei nor-nori-nork erakusten segitzen dugu, baina ez nork nori zer kendu dion.

Imanol Epelde (ARGIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POZAN POZEZ. → Oso pozik, pozarren. "Pozan pozez, egon ezinda".

POZARREN. → Oso pozik, poz-pozik. "Pozarren dator neregana".

PRAKAK. → Galtzak. Pluralean normalean. "Prakak janzteko astirik barik urten bihar izan eban lo eguan lekutik suari igesika".

1961

Udaltzainak
Lambretta
ganean

Eibarko udaltzainak dira, gure herrian egindako Lambretta motorretan. Eurek erabiltzeko moldaketa batzuk egin zizkieten modelo estandarri: faroan argi gehigarria ipintzeaz gain, sirena bat gehitu zioten.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (J. Etxeberría, 4)
ZAPATUA 18
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
DOMEKA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 20
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUENA 23
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
BARIXAKUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Forcen Morena**. 97 urte. 2026-07-07.
- **Felipe Martinez Astigarraga**. 78 urte. 2026-07-09.
- **Vicente Ordoño Delgado**. 92 urte. 2026-07-10.
- **Antonio Martinez Garcia**. 90 urte. 2026-07-10.
- **Ines Romero Tena**. 68 urte. 2026-07-11.
- **Enrique Fariñas Formoso**. 93 urte. 2026-07-12.
- **Jose Fernandez Casilla**. 85 urte. 2026-07-12.
- **Jesus Olañeta Olañeta**. 93 urte. 2026-07-13.
- **Maria Aizpurua Olaizola**. 86 urte. 2026-07-15.



Etxebizitza Ministerioak 3 milioi euro bideratuko ditu Murrategi biziberritzeko

S.H. Etxebizitza eta Hiri Agendaren Ministerioak onartu egin du Murrategi auzoa berroneratzeko 3 milioi eurorainoko dirulaguntza. Laguntza 2026ko etxebizitza arloko dirulaguntzak arautuko dituen Errege Dekretuaren proiektuan jasota dago jada, eta behin betiko testua datozen asteetan argitaratzea aurreikusten da.

Dirulaguntza Murrategiko Birgaitze Integratuko Plan Berezian aurreikusitako jarduketak finantzatzeko erabiliko da. Horien artean daude eraikinak birgaitzea, espazio publikoak eta azpiegiturak hobetzea, sarbideak egokitzea eta auzoaren berroneratzea. Laguntza hau 2022ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan EH Bilduk aurkeztutako eta Espainiako Gobernuak onartutako zuzenketa baten ondorio da. Hala ere, orain arte ez zen Etxebizitza Ministerioaren urteko dirulaguntzen artean sartu.

Murrategiko Birgaitze Integratuko Plan Berezia 2021ean onartu

zuen Eibarko Udalak, 2016ko azterlan sozio-urbanistiko batean identifikatutako beharrei erantzuteko. Planak sei bizitegi-eraikin eta 28 etxebizitza hartzen ditu, eta etxebizitzak birgaitzeaz gain, lurzoruak eskuratzea, parkeak eta aparkalekuak sortzea, argiteria eta galtzadak hobetzea eta Ego ibaiaren ingurunea berroneratzea aurreikusten du.

Alkatearen berbetan, “maila goreneko gestioak egin behar izan ditugu dirulaguntza hori, azkenean, Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioaren 2026. urteko dirulaguntzen Errege Dekretuaren proiektuan jasota egotea lortzeko. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiot bereziki Isabel Rodriguez ministroari —duela urtebete baino gehixeago Txonta auzoa ere bisitatu zuena Denis Itxaso Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuarekin batera— Eibarko herriarekin duen konpromisoagatik eta, bereziki, Murrategi auzoaren premiekiko duen sentsibilitateagatik”.

1,2 milioi euroko inbertsioa eskualdeko energia-eredua sendotzeko

S.H. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak 1,2 milioi euro bideratuko ditu 2026an eta 2027an eskualdeko energia-planak indartzeko eta energia-trantsizio bidezko, jasangarri eta herritarregandik hurbil baterantz aurrera egiten jarraitzeko. Jasangarritasuneko diputatu Jose Ignacio Asensiok eta lurraldean lan egiten duten eskualdeko hamar garapen-agentzietako ordezkariak, tartean Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak hitzarmena sinatu dute. Edizio honetako berrikuntza nagusia da hitzarmenak bi urtean behin egiten direla, eta 2026ko eta 2027ko ekitaldiak hartzen dituztela. Adierazi dutenez, “horrela, egonkortasun handiagoa ematen zaie eskualde-agentziei, energiaren arloko proiektu estrategikoak planifikatu eta garatzeko. Agentzia bakoitzak 120.000 euroko ekarpena jasoko du, urtean 60.000 eurokoa, hau da, 1,2 milioi euroko inbertsioa”. Eskualde bakoitzak bere errealitatera egokitutako proiektu espezifikoak garatuko ditu. Debabarrenak herritarrei eta udalei energia-aholkularitza ematen jarraituko du, eta mugikortasun jasangarria sustatuko du eskualdeko joan-etorrietan.





Martitzenetik eguenera egingo da udako beherapenen azoka

S.H. Herriko merkataritza sustatzeko urtero antolatzen den udako beherapenen azoka datorren astean egingo da: uztailaren 21, 22 eta 23an, martitzenetik eguenera zabalduko dute, Toribio Etxebarria kalean, 10:00etatik 20:00etara.

Eibarko merkatarien elkarteak udalarekin batera antolatzen duen azokan 27 establezimenduk hartuko dute parte oraingoan: horietako 19 Toribio Etxebarria kalean egongo

dira (Atelier 11, Bambi, Burbujas y más, Design by Nona, Elortza botika, Eskulan, Farmalur Berria, Gigil Design, Glow Up, Gratzina, Guby, Helmet House, Kopina, Neure, No Comment, Pissa, Twins, Txukuna eta Zentral optika), eta beste zortzik dendan bertan egingo dituzte eskaintza bereziak (Beittu optika, Cedry, Corral, Galarreta, Igmarr federopticos, Moapics, Multiópticas eta Vieco).

...eta kitto! Euskara Elkartearen mahaia hiru egunetan

Ohikoa denez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak mahaia ipiniko du hiru egunetan, 10:00etatik 12:00etara, Euskeraz Primeran kanpaina sustatzeko. Ekimenaren helburua eibartarrak dendetan euskeraz egitera bultzatzea da. Aurten ruleta bat ipiniko dute; bertan kolore desberdinak egongo dira, eta kolore bakoitzak egokitzen zaion saria izango du. Parte hartzen duten guztien artean Arrateko Bertso Afarirako 2 sarrera zozketatuko ditu ...eta kitto!-k.

●●●
FUNEUSKADI
Grupo Asolita

●●●
TANATORIO EIBAR

●●●
FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

●●●
TANATORIO CREMATÓRIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funenskadi.com

Eibar: Otaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuarte
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89



Eibarko Ernaik lehen Elkargunea egingo du uztailearen 23an

S.H. Eibarko Ernaik lehen Elkargunea antolatu du uztailearen 23rako, egunerako. Bileran 19:00etan hasiko da Txaltxa-Zelaian, eta “Garaiak borroka eskatzen du!” lelopean egin dute deialdia. Gazte antolakundeak jakinarazi duenez, Elkargunean datozen hilabeteetako dinamika eta egingo dituzten ekintzen berri emango dute.

Biohondakinaren bilketaren kalitatea nabarmen hobetu da Debarrenean

S.H. Gure eskualdean jaso eta Epeleko instalazioan (Legazpi) tratatutako biohondakinaren lehen karakterizazioen emaitzak jaso ditu Debarreneko Mankomunitateak eta, adierazi dutenez, “datuen arabera, bildutako materialaren kalitatea nabarmen hobetu da, konposta egiteko frakzioa oso handia baita, eta desgokiak nabarmen murriztu baitira”.

2026ko apirilaren 23an eta 24an egindako lau karakterizazioen arabera, konposta egiteko materialaren ehunekoak %96tik gorakoak izan dira kasu guztietan. Zehazki, Eibarko laginek %96,76 eta %98,37 arteko frakzio konpostagarria lortu dute; Elgoibarkoek, %97,91koa; eta Deba-Mutrikutik etorritakoek izan dute emaitza onena, %98,84ko material konpostagarria izatera iritsi baitira.

Mankomunitatetik diotenez, “emaitza horiek berretsi dute Debarrenen biohondakina biltzeko sistemak bilakaera positiboa izan duela, bereziki 2025eko martxoa eta maiatza artean edukiontzi organikoak itxi zirenetik. Neurri ho-

rrek zuzenean lagundu du kudeaketa-sistemaren eraginkortasuna indartzen”.

Nabarmendu dutenez, “hobekuntza bereziki garrantzitsua da aurreko karakterizazioen datuekin alderatuz gero. 2022ko azaroan, biohondakinentzako edukiontziak itxi aurretik, laginen arabera, desgokiak %5,40koak ziren, eta Gipuzkoako Hondakin Kon-sorzioak ezarritako legezkotik muga (%5) gainditzen zuten”.

Hobekuntzak egin ondoren, errefusa, gaur egun, %1,16 eta %3,24 artekoa da aztertutako lagin guztietan: “Horrek esan nahi du hobekuntza egiturazkoa eta iraunkorra izan dela eskualdean”.

Materialaren kalitatea hobetzeaz gain, edukiontziak itxeari esker, “poltsak arrantzatze” zerbitzua kontratatze beharrik ez egotea lortu da, “organikoaren edukiontzietatik desgokiak poltsa osoak kentzeko erabiltzen baitzen lehen. Modu horretan, neurriak zerbitzuaren kudeaketa sinplifikatu eta kostu gehigarriak saihestu ditu”.



Odola emateko hurrengo saioa egunean izango da

S.H. Datorren astekoa izango da uztailako azken saioa odol-emateentzat. Beti bezala, odola eman nahi duenak Untzagako Gizarte Zentrora joan beharko du, egunean (uztailearen 23an), 16:50etik 20:50era.



Abuztuan hasiko dituzte Txomoko parkea birmoldatzeko lanak

S.H. Eibarko Udalak abuztuan hasiko ditu San Andres ikastetxearen aldamenean dagoen Txomoko parkea birmoldatzeko eta hobetzeko lanak. Auzokideen eskaerari erantzunez egingo den proiektua lizitazio fasean dago, 380.483 euroko aurrekontua du, eta obrek 20 asteko iraupena izango dute. Aurreikuspenen arabera, urte amaierarako bukatuko dituzte lanak.

Udalaren arabera, jarduketaren helburu nagusietako bat parkeko erabiltzaileen eta inguruko

bizilagunen arteko elkarbizitza hobetzea da. Horretarako, Obra Sailak hainbat aukera aztertu ditu, auzokideekin batera, eta adostasunez aukeratu dute gauzatuko den proposamena.

Birmoldaketaren ondoren, parkeak jolaserako bi gun izaten jarraituko du: ikastetxearen ondoak eta atzealdeak. Horiez gain, forma eta tamaina ezberdinetako jardinerak jarriko dituzte, “espazioa berdeagoa bihurtu eta erabilerak hobeto antolatzeke”.

Irailean hasiko da haurren aisialdi zerbitzuetarako aurrematrikulazioa

S.H. 2026/2027 ikasturtean zehar Errebal ludotekan, Afariketan eta Jazinto Olabeiko ludotekan parte hartu nahi dutenek irailaren 14tik 20ra bitartean aurrematrikula egin beharko dute, online. Izena eman aurretik, informazio guztia ondo irakurtzeko eskatu dute antolatzaileek, hiru zerbitzu ezberdin eskainiko dira eta: Errebal, Afariketan eta Jazinto Olabe. Horietako bakoitza adin-tarte jakin batentzat pentsatuta dago, eta nahitaezkoa da bakoitzari dagokion tokian izena ematea. Informazio guztia Eibarko Udalaren web orrian dago eskuragarri.



Eskaladan trebatzeko rokodromo berria eraikiko dute Ipurua kiroldegian

S.H. Ipuruako kiroldegian rokodromo berria eraikiko du Eibarko Udalak. 131.000 euroko inbertsioa egingo du “eskaladarako egokitutako espazio moderno eta seguru” bat eraikitzeko, eta bi squash pista eta biltegi bat erabiliko ditu horretarako. Lehen fasean, horma eraisteko eta lurzorua egokitzeko lanak egin ziren, 38.000 euroko inbertsioarekin. Ondoren, rokodromoaren

(bulder) egitura egin da; azken lan horien aurrekontua 59.500 eurokoa izan da. Proiektuaren azken fasean, segurtasun-koltxonetak eta eskaladako presak erosiko dira (33.500 euroko aurrekontua). Hornidura horren lizitazioa aurtengo uztailan egitea aurreikusten da, ekipamendua osatu eta instalazioa herritarren eskura ahalik eta azkarren jartzeko.

Kirola eta artea integratuz bide

BIDEOA



Debegesa garapen agentziak bultzatuta, Gazte Kide proiektua jarri dute martxan ikasturte honetan. Eibarrera iritsitako gazte etorkinei harrera egiteko eta herrian integratzen laguntzeko jaio den ekimena da eta, horretarako, kirola eta artea izan dituzte bidelagun.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Marta Lores arduratu da Gazte Kide proiektuaren koordinazioaz. Hainbat ekintza egin dituzte azken hilabeteotan eta arteterapia saioekin amaitu dute, Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan dagoen erakustea batekin boroilduz. Arteterapia saioaz Maite Arriaga arduratu da, eta erakusketak prestatzen ari ziren bitartean harrapatu ditugu proiektuaren inguruan berba egiteko.

Gazte Kide proiektua “Eibarren beharra zegoela nabari zelako” jarri zen martxan, Loresek kontatu digunez. Baina, zeren beharra? “Herrira heldu berri diren gazteen beharrak aztertu genituen eta horietako batzuk ziren Eibar ezagutzea edota herrian sareak sortzea (askotan eskolatik etxera itzultzen dira zuzenean eta lagun talde murritzuetan bakarrik harremantzen dira). Gainera, kontuan izan behar dugu 12-17 urte arteko gazteak direla, nerabetasun bete-betean



daudela eta prozesu migratorio nahiko potentea egin dutela (euren bizitza bat-batean moztu eta hona etorri dira, eurek erabakian parte hartu gabe). Euren osasun mentala nahiko arriskuan dagoenez, pentsatu genuen kirola demaseko erreminta izan zitekeela gazte horiei bide horretan laguntzeko”.

Gazteei kirolaren bidea zabaltu aurretik, herriko klubekin harremanetan jarri ziren euren asmoen berri emateko. “Eibarko Klub Deportibotik, CD Urki futbol talde-tik, Eibar Saskibaloiatik eta beste hainbat taldeetatik baiezkua eman ziguten”, diosku Loresek. Gero, ikastetxeekin eta Gizarte Zerbitzuekin batzartu ziren proiektua azaltzeko eta erremintak emateko gazteak detektatu zitzaizten, gero eurengana bideratzeko. “Bideratu ondoren, familiekin eta gazteeikin elkartu ginen, eta aurrez aurreko elkarrizketak egin genituen. Horrela, 29 gazte bideratu zizkiguten eta, guztiekin batu ondoren, premia gehien zituztenen balorazioa egin genuen. Izan ere, guztiei ezin genien dirulaguntza eman kirolean fitxa egiteko, materiala erosteko... Dena dela, klubek demaseko laguntza eman digute, nahiko aurrekontu murriztua izan dugulako. Beharra gazte guztiek zituzten, baina batzuek beste batzuek baino gehiago, eta azken horien egoera, beharrak eta abarrak gehiago aztertu genituen, erantzuna emateko”, azaldu digu Loresek.

Emitza positiboak

Gazte batzuek hasieratik zuten argi zertan aritu nahi zuten, bai-



Maite Arriaga eta Marta Lores. EKHI BELAR

na beste batzuek aurretik inoiz ez zuten kirolik praktikatu. “Beraz, hasieran kirolak probatzen ibili ziren eta gero bakoitzak gustukoena aukeratu zuen”, dio koordinatzaileak. Orduan, fitxa egin zitzaizten horretan aritzeko, eta materiala eta beharrezko guztia eman zitzaizten. “Guztira, 15 gazte ‘bekatu’ ditugu”, diosku Loresek. “Hala ere, jarduerak extra batzuk egiteko aukera zegoela ikusita, gainerako gazteei ere

erantzuna eman nahi izan nien, kanpoan ez geratzeko. Azkenean helburua bera zen: etxetik irteera, lagunak egitea, herriarekin harremanantzea... Horrela, SD Eibar-ek sarrerak eman zizkigun partida bat ikustera joateko eta denak joan ziren; diru-poltsa txiki bat eduki dugu surf egiteko eta hor ere denak egon dira; herrian egon diren erakusketetara joan dira denak... Herriarekin beste harreman bat



Eibarko kirol taldeen kolaborazioa ezinbestekoa izan da Gazte Kide proiektua aurrera eramateko. EKHI BELAR

sortu dute horrela, euren artean elkar ezagutu dute eta beste gazte batzuk ere” ezagutu diuzte.

Otsailetik hona egon da martxan Gazte Kide programa. “Denbora gutxi izan da”, Loresen iritziz, baina proiektuak gazteengan izan duen eragina oso nabarmena dela dio: “Gazte batzuk ez ziren etxetik irteten eta orain kalean dabilta lagunekin aurrera eta atzera”.

Amaitzeko, arteterapia

Maite Arriagak eskaini dien arteterapia saioekin amaitu dituzte Gazte Kide proiektuaren ekintzak. “Kirolaren eta aisialdiaren bitartez ongizate emozionala lortzen dugu, beraien tokia aurkitzeko modu bat izan da eta errutinak sortu dituzte, besteak beste; baina badago beste alderdi bat arteterapiarekin landu duguna: askotan inork ez die galdetzen zer moduz dauden eta eurak ere ez dira zer moduz dauden pentsatzera gelditzen (agian ez dakite nola egin ere, normala denez). Orduan, arteterapiare-

kin, konturatzen zarenerako zure buruak eta arimak eramaten zaituzten tokiak margotzen dituzu”, azaldu digu Loresek.

Arriagak modu sinplean azaldu digu zein den arteterapiaren helburua: “Hitzen bitartez adierazi ezin dena irudien bitartez adieraztea”. Horrela, koadro bakoitzak emozio edo irakurketa ezberdin bat adierazten du, eta pertsona bakoitzaren barrutik irteten da, istorio bat kontatuz. “Irudi oso ezberdinak egin dituzte. Irudi gogorak daude, baita kolore gogorak ere, argitasuna eta askatasuna... Ez naiz ausartzen hitzak ipintzen, arriskutsua delako eta bakoitzaren irudiak errespetatu behar direlako”, diosku artistak.

Honekin amaiera emango diote Gazte Kide proiektuari, baina gazteen bizitzak aurrera jarraituko du. Beraz, gero zer? “Gazteek hau guztia amaitzen zela jakin zutenean egin zuten lehen galdera hau izan zen: Datorren urtean jarraituko dugu? Nire erantzuna izan zen ez dakidala. Proiektu pilotua izan

da. Ideia hor laga dugu, demaseko erantzun ona izan du eta memoria bete-betea idatzi dugu. Agian, norbaitek lekukoa hartzea nahiko luke, baina momentuz ez dakigu. Oraingoz, esperientzia hau geratu zaigu. Erakutsi dugu beharra badagoela eta ondo funtzionatzen duela. Gogoan badago, baita gazteak ere, eta aurrerantzean hori izango da joera. Prozesu migratorioak egin dituzten familiak egongo dira, gazteekin, familiek lan asko egiten eta gazte asko etxean, zaintzaile lanak egiten edo dena delakoa. Hori ez da osasuntsua. Eurak ere eibartarrak dira, nagusiak izango dira eta baita guraso ere, eta bizitzako esperientziek markatu egingo dituzte nagusitzen doazen momentuan. Beraz, adin hauetan eurekin lan egitea oso garrantzitsua da. Baita txikiagoekin ere, baina eurek Eskola Kirola dute, adibidez. 12 urtetik aurrera kirola egitea pribilegioa bihurtzen da eta, ulertzekoa den bezala, familia hauek ez dute aukerarik”, Loresen ustez.

UDAKO **MERKEALDIEN** **AZOKAN** ERE

Euskeraz
primeran!

Jolasa+ oparia =
Z O Z K E T A

Uztailaren 23an
eguerdiko 12:00etan
...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik
ARRATEKO BERTSO AFARIRAKO
bi sarrera zozketatuko
ditugu

UZTAILAK
21-22-23
10:00ETATIK 12:00ETARA
TORIBIO ETXEBARRIA KALEAN IZANGO GARA

“Taldekide bakoitzak bere zigilua du eta horren fusioa egiten dugu, taldea aberastuz”

RYTHMACHIN • Musika taldea



Su geldoan kozinatu dute Rythmachin proiektua eta, azken bi urteetan errezetarekin eman ondoren, oso zapore gozoa hartu du. Beraz, zer hobe eurekin Estixa parkean geratzea baino? Oier Gurrutxaga eta Alex Martinez ezin izan ziren gerturatu, baina Ekhi eta Ekaitz Vegas, Maitane Da Silva eta Gorka Jauregirekin batu ginen bertan.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Taldearen izena daraman diskoa kaleratu du aurtun Rythmachinek. “Disko dibertigarria”, euren berbetan, taldeak jorratzen dituen estilo ezberdinen erakusle. Entzuleari ondo pasaratzen dion lana da, baina ondoen pasatzen dutenak musikariak dira eta oholta gainean igartzen da.

Orain dela urtebete inguru izan genuen zuen berri eta dagoeneko diskoa atera duzue. Nolako bilakaera izan du Rythmachinek?

EKHI: Orain dela hiru urte inguru abesti batzuk egiten hasi nintzen etxean, denborapasa bezala, eta gero taldea sortzeko jendea bilatzen hasi nintzen. Lehena anaia izan zen (Ekaitz), bateria-jolea, eta hasiera batean, lokalean sartuta abestiak entseatzen hasi ginen. Segituan Gorka animatu zen, kuadrillakoa eta betiko laguna. Gero, Gorkak gitarra-jolea eta saxofoi-jolea lortu zituen. Hasieran abesti instrumentalak egiten genituen eta Izengabeak lehiaketa parte hartu genuen. Handik urtebetera Maitaneri taldean sartzea aipatu nion, aspalditik elkar ezagutzen garelako, eta animatu eta gaur egungo Rythmachin sortu genuen. GORKA: Esan, tarte horretan saxofoi- eta gitarrak joleak aldatu egiten genituela.

Aldaketa horiekin guztiekin, hasierako ideia asko moldatu zen?

EKHI: Bai. Etxean egiten nuena zirriborro moduko bat zen, baina lokalean forma eman genion eta bakoitzak bere estiloa sartu du. Horrela, gure doinua potenteago entzuten da, ez da etxeko zirriborro hura. **Galdera hau musikariei ez zaizue gehiegi gustatzen, baina estiloari dagokionez nolako taldea da Rythmachin?**

EKHI: Ez dakit zein estilo jotzen dugun. Agian, hasierako estiloa funkya zen, baina abesti bakoitza mundu bat da. Nik neuk ez dakit definitzen.

GORKA: Fusioa dela esango nuke, mestizaje bat. Estilo asko hartzen ditu barne. Kantu bakoitza oso ezberdina da.

EKHI: Gainera, musikari bakoitza estilo ezberdineta-koak gara eta sortzen den nahaste-borrastea polita da. **Taldekideak beste proiektu batzuetan ibili zarete, ezta?**

EKAITZ: Denok dugu beste proiekturen bat. Oier gitarrak joleak beste proiektu batzuk ditu eta izan ditu, Gorkak ere bere lanak egin ditu beste talde batzuetan, Ekhi eta nik ere, eta Maitanek agian gutxien, baina badu esperientzia. Denok dugu adin bat eta, gehia-



Taldeko kide bakoitzak bere ekarpena egin dio Rythmachini eta hortik sortu dituzte soinu potenteak. RYTHMACHIN

go edo gutxiago, denok dugu ibilbide bat. Bakoitzak bere zigilua du eta horren fusioa egiten dugu. Horrek taldea aberasten du.

Nola bizi duzue Rythmachin? Zein asmorekin?

EKHI: Hasiera batean denborapasa zen eta, oraindik ez dugu kontzertu askorik eman, baina ikusten dugu jendeari egiten duguna gustatzen zaiola, diskoa atera dugula... Oso pozik gaude diskoarekin. Bilbon grabatu dugu, 11 abesti ditu eta oso potentea da.

GORKA: Lehenengo gauza ondo pasatzea da. Kontzertuetan ondo pasatzen dugu, hori transmititzen dugu eta datorrena etor dadila.

Diskoa grabatzea helburu garbia zen zuentzat ala nola sortu da aukera?

MAITANE: Hasieran entseatu egiten genuen, ondo pasatzeko batez ere, eta gero kontzertuekin hasi ginen. Orduan, pentsatu genuen entseguekin eta kontzertuekin agian motz geratzen ginela, eta diskoaren ideia agertu zen. Ia-ia nahi barik etorri zen.

EKAITZ: Hori da. Kontzertuak ematen genituen, baina pausu bat gehiago eman nahi genuen. Abestiak

“Lehenengo gauza ondo pasatzea da. Kontzertuetan ondo pasatzen dugu, hori transmititzen dugu eta datorrena etor dadila”

eginda zeuden, grabatzeko gogoia genuen eta horrela sartu ginen estudioan.

EKHI: Diskoa grabatzea beti da polita. Bakoitzak bere ekarpen ekonomikoa egin eta joan den abenduan sartu ginen estudioan.

GORKA: Norbere kantuetan soinu ona edukitzea ere denontzat da erakargarria, hau da, gure abestiak kalitate onean entzutea.

Diskoa grabatzeko prozesuak lagundu egin dizue taldearen soinua garatzeko orduan?

EKHI: Bai. Grabatzerako orduan, teknikariak go-

BIDEOA



mendioren bat edo beste eman digu eta zuzenekoetan erabili izan ditugu. Oso aberasgarria da.

Diskoa saltzeko nola moldatzen zarete?

EKAITZ: Gaur egun diskoak ez dira erosten, hori badakigu (barreak). Malabarrak egiten ari gara saltzeko. Kontzertuetan saltzen ditugu batzuk. Bestela, betiko moduan: lagunen artean, familia, ezagunak... Dena dela, pozik gaude saldutakoarekin. Diskoa sare sozialetan entzungo da batez ere.

EKHI: Diskoa nahi duenak gurekin jarri daiteke harremanetan Instagram bitartez (@rythmachin) eta diskoa etxera bidaliko diogu.

MAITANE: 15 euro besterik ez du balio. Ez da larregi egin dugun lanaren truke! Hau ez da beste talde batzutan moduan. Alde batetik, oso ona izan daiteke soinu propioa eta estilo bera edukitzea, baina gure kasuan ez da horrela. Abesti batetik bestera estiloa aldatu egiten da. Talde bitxia eta berezia gara.

EKAITZ: Dibertigarria d; 11 abesti dira eta ez dute lerro bera jarraitzen. Funkya, reggaea, musika lasaia... aurkitu ditzakegu bertan.

EKHI: Esan dugu abestiak nik konposatzen ditudala, baina disko erdiaren letrak Maitanerenak dira eta hor ere aldaketa igartzen da.

Zeri buruz abesten duzue?

EKHI: Nire abestietan 'katxondeo' gehiago egon daiteke eta Maitanerenak sakonagoak dira.

MAITANE: Bizitzari buruz idazten dut: esperientziak, bizipenak...

EKHI: Maitaneren letrak autolaguntzakoak direla esan ohi dut (barreak).

MAITANE: Psikologoa eta irakaslea naiz, eta hor nabari da nire alde profesionala.

EKHI: Abestiak politikak dira.

MAITANE: Polita da besteekin norbere bizipenak partekatzea eta, gainera, abestiek harrera ona izan dute. Kontzertuen tokiak ere oso ezberdinak izan dira. Lehenengo kontzertua Soraluezko gaztetxean izan zen eta azkena Orioko 'Mola Mola'-n, eta giroa eta bertaratutakoak oso ezberdinak izan dira, baina



“Polita da besteekin norbere bizipenak partekatzea eta, gainera, abestiek harrera ona izan dute”

toki batean zein bestean oso harrera ona izan dugu. Horrek garrantzi handia du nire ustez.

Kontzertuak nola bizi dituzue?

MAITANE: Niretzat opari bat da talde honen kide izatea. Hasieran, kontzertuak beldur pixka batekin hartzen nituen. Oso berbatia naiz eta energia handia dut, baina jendearen aurrean aritzea pixka bat konplikatzen zait. Elkarrekin sortu dugun energia polit hau besteekin partekatzeko tarteak izaten dira kontzertuak eta pasada bat dira niretzat.

EKAITZ: Kontzertuak dibertigarriak izaten dira.

GORKA: Nik oso ondo pasatzen dut. Elkartu egiten gara, bidaia egiten dugu, barreak, jo, ondo pasatu eta, gero, elkarrekin partekatzen dugu nola pasatu dugun.

EKHI: Kuadrillako plana da ia-ia.



IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA

Gurea, Euskal Selekzioa

Gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketa jokatzeko ari den honetan, askok futbolaz hitz egiten dute. Nik, ordea, futbolaz baino gehiago, ordezkartaz hitz egin nahi dut. Argi daukat nazioarteko kirol-lehiaketak ez direla kirola soilik: nortasuna dira, ikurrak dira eta, nahi ala ez, politika ere badira.

Askotan entzun izan dugu kirola politikatik kanpo utzi behar dela. Baina Munduko Kopa batean bandera bakoitzak estatu bat ordezkatzeko du, ereserki bakoitzak nazio bat eta selekzio bakoitzak nazioarteko aitortza jakin bat islatzen du. Horregatik, kirola eta politika bereizita daudela esatea errealitateari bizkar ematea da.

Eta hor dago, hain zuzen ere, auziaren muina. Euskal Herriak hizkuntza, kultura eta nortasun propioak ditu, baina nazioarteko kirolean ezin du modalitate gehienetan herri gisa lehiatu. Horregatik, euskaldun askorentzat Euskal Selekzioaren ofizialtasuna ez da kirol auzi hutsa; aitortzaren auzia ere bada. Jokoa dagoena gure herria munduan bere izenean ordezkatu ahal izatea da. Herri bat garen heinean, beste herriek duten aukera bera nahi dugu: gure koloreekin, gure izenean eta gure selekzioarekin lehiatzea.

Horregatik dira garrantzitsuak Zazpi Baietz, Gu ere Bai! eta Gure Eskuk sustatutako ekimenak, besteak beste. Ez dira futbolaren aldeko mobilizazio hutsak; gure herriaren nazioarteko aitortzaren aldeko aldarriak dira. Euskal Selekzioaren ofizialtasuna eskatzea ez da inoren aurka egitea, geure buruaren alde egitea baizik.

Ez dut beste selekzio batzuen garaipenak ospatzeko beharrik sentitzen. Nire nahia Euskal Selekzioa modalitate guztietako txapelketa ofizialetan ikustea da: gure koloreak ordezkatzeko, gure hizkuntza entzuten eta gure herriaren izena mundura eramaten. Duela gutxi, Euskal Herriko ardi moztailen selekzioak Zeelanda Berriko Munduko Txapelketan egin zuen bezala.

Herri bat garelakoa. Eta herri batek bere selekzioa merezi duelako. Gurea Euskal Selekzioa da.

“Kirola eta politika bereizita daudela esatea errealitateari bizkar ematea da”

MU- TRIKU Malen jaiak

07_21

JAI BATZORDEA

/ KARROPOTEOA

13:00 EGAÑA GUNEA

/ TXUPINAZOA ETA
OMENDUAPALESTINAREKIN
ELKARTASUN
ARGAZKIA

14:00 TXOSNAGUNEA

/ BAZKARIA
ETA ZUNBA

15:00 EGAÑA GUNEA

/ TXARANGA A LA
MUTRIKUARRA

20:30 KALEETAN ZEHAR

/ DJ URGOZO eta
DJ FARRUKITAS

00:30 DJ TXOSNAGUNEA

UDALA

/ TXUPINAZOA
ETA ERRALDOIETA BURUHANDIEN
KALEJIRA

18:00 UDALA

/ DULTZAINEROEN
KALEJIRA

19:00

/ ESKU PILOTA
JAIALDIA

19:00 MIRUAITZ FRONTOIA

/ LARRAIN DANTZA

20:00 GOIKO PLAZA

/ DANBORRADA

23:00 KALEETAN ZEHAR

/ DISKOFESTA
OIZEDER MAYO eta
OIHAN VEGA

ONDOREN, GOIKO PLAZA

07_22

JAI BATZORDEA

/ BERTSO POTEOA
AITOR BIZKARRA eta
ALEXANDER IDOETA

20:00 GAZTETXEAN HASI

/ KONTZERTUA
MALKO TALDEA

21:00 TXOSNAGUNEA

/ KONTZERTUA
SKARREGEKASKO eta
ALARMA MOREA

23:30 TXOSNAGUNEA

UDALA

/ DIANA
MUSIKA
BANDAREKIN

10:00 HERRIGUNEA

/ HAUR PARKEA

11:30 - 14:00 eta 16:30 - 19:00

EGAÑA GUNEA

/ KONTZERTUA
MUSIKA BANDA

13:00 GOIKO PLAZA

/ SU ARTIFIZIALAK

23:00 GOIKO PLAZA

/ KONTZERTUA
JOSELU ANAIK

ONDOREN, GOIKO PLAZA

07_23

JAI BATZORDEA

/ TOPA
DENAK ETXERA

13:30 TXOSNAGUNEA

/ BAZKARI
HERRIKOIA

15:00 TXOSNAGUNEA

/ KONTZERTUA
ELENE ETA
ANUKE

16:30 TXOSNAGUNEA

/ELEKTROTXA-
RANGA
ONDOEZIK

21:00 KALEETAN ZEHAR

/ PLAYBACK
TXAPELKETA
ETA JOLASAK

23:30 TXOSNAGUNEA

UDALA

/ KALEJIRA
ERRALDOI

ETA BURUHANDI KONPARTSA ETA TXISTU TALDEA

12:00 KALEETAN ZEHAH

/ HERRI KIROLAK UMEENTZAT

ONDOREN, GOIKO PLAZA

/ ZIRKU IKUSKIZUNA MODERNOAK

17:00 ZABIEL PLAZA

/ UMEEN DANBORRADA

20:00 KALEETAN ZEHAH

/ DISKOFESTA ESNA GAZTE!

21:30 GOIKO PLAZA

07_24

JAI BATZORDEA

/ KUADRILLEN BAZKARIA

15:00 TXOSNAGUNEA

/ KONTZERTUA DEBRASSBAND

20:00 TXOSNAGUNEA

/ ERROMERIA MUGI PANDEROA eta DJ MIREN GISA

23:30 TXOSNAGUNEA

UDALA

/ HAUR PARKEA

11:30- 14:00 EGAÑA GUNEA

/ TXARANGA LATUNA BANDO

13:00 - 15:00 KALEETAN
ZEHAH

/ KONTZERTUA JANUS LESTER

22:30 GOIKO PLAZA

07_25

JAI BATZORDEA

/ KALEJIRA TRIKI PANDERO

13:00 KALEETAN ZEHAH

/ KONTZERTUA DCAPRICHIO

20:30 TXOSNAGUNEA

/ KONTZERTUA 48280, 721 eta DJ TINTZ

23:00 TXOSNAGUNEA

UDALA

/ PINTURA LEHIAKETA

10:00

/ OKELA ETA TXAKOLIN DASTAKETA

13:00 GOIKO PLAZA

/ ZIRKU IKUSKIZUNA LORATZEN

18:00 GOIKO PLAZA

/ JAI ALAI MASTER SERIES FINALAK


19:30 MIRUAITZ FRONTOIA

07_26

JAI BATZORDEA

/ BERTSO SAIOA AISSA INTXAUSTI, JANIRE ARRIZABALA- GA, ANE LABAKA ETA ELIXABET ETXANDI

18:00 TXOSNAGUNEA



SORALUZE

Santa Anak

07_23

GAZTE EGUNA

**/ TXUPINAZOA
ETA KARROPOTEOA**

12:00 ZUBI NAGUSIA

**/ GAZTEEN BAZKA-
RIA ETA JOLASAK**

15:00TIK ZUBI NAGUSIA

**/ KALEJIRA
PATXANGOI
ELEKTROTXARAGA**

18:30 HERRIGUNEA

**/ KONTZERTUA
POLO OPUESTO**

23:00 ZUBI NAGUSIA

/ DJ AIAKATE

01:00 ZUBI NAGUSIA

07_24

**/ GOIZ ERESIA
DIADAR
TXISTULARIAK**

10:00 HERRIGUNEA

/ KANTUJIRA

13:00 HERRIGUNEA

/ ZUNBA

17:15 ZUBI NAGUSIA

/ KANOIKADA

19:00 UDALETXEA

**/ KALEJIRA
GALTZAGORRI
TXARANGA**

19:00 KALEETAN ZEHAR

**/ JAIALDIA
RCTM MUSIKA
ELEKTRONIKOA**

19:15 KIROLDEGIKO TERRAZA

**/ FUTBITO
TXAPELKETA FINALA**

19:30

/ AÑUBE TALDEA

23:00 PLAZA ZAHARRA

**/ STREETWISE ETA
M&M TALDEAK**

00:30 ZUBI NAGUSIA

07_25

**/ HERRIKO ARTI-
SAUEN AZOKA**

10:30 PLAZA ZAHARRA

**/ SALDA ETA
TXORIZOA**

11:00 PLAZA ZAHARRA

**/ KROSA
HAUR ETA
GAZTETXOENTZAT**

11:00 PLAZA ZAHARRA

**/ DASTAKETA
GAZTA ETA
SAGARDOA**

12:00 PLAZA BARRIXAN

**/ AURKEZPENA
SORALUZEKO
ERRALDOIAK**

12:00 UDALETXEA

**/ KONTZERTUA
PANTO BALBUENA**

14:00 SANTA ANA

**/ HERRI BAZKARIA
HIRU MENU**

15:00 KALEBARREN

/ BINGOA eta

JOLAS-TAILERRAK

16:30 KALEBARREN

**/ ZIRKUA
TAVOLÉ**

18:00 PLAZA ZAHARRA

**/ JAI ALAI
TXAPELKETA**

18:30 ARANE KIROLDEGIA

**/ KONTZERTUA
MAIALEN ETA ELAIA**

19:30 ZUBI NAGUSIA

**/ TXAPELKETA
TOKA ETA IGELA**

20:30 PLAZA BARRIXA

/ DANBORRADA

22:00 HERRIGUNEA

**/ MARIATXIAK
LOS TENAMPAS**

00:00 PLAZA ZAHARRA

/ JAIALDIA
RCTM TEKNO GAUA

00:00 KIROLDEGIKO TERRAZA

/ KONTZERTUA
FAN & GO TALDEA

01:00 ZUBI NAGUSIA

07_26

/GAUPASEROEN
ARGAZKIA

06:45 PLAZA ZAHARRA

/ DIANA
SORALUZЕKO
GAITEROEKIN

07:00

/ SALDA ETA
TXORIZOA

11:00 PLAZA
ZAHARRA

/ BAKAILAO
LEHIAKETA

11:30 PLAZA ZAHARRA

/ PUZGARRIAK

11:30 FRONTOI ZAHARRA

/ HERRI KIROLAK

12:30 PLAZA BARRIXA

/ APAR FESTA

13:30 FRONTOI ZAHARRA

/ PRESOEN ALDEKO
BAZKARIA

14:45 PLAZA ZAHARRA

/ BARRU TXAPELKETA

17:00 GOIKO FRONTOIA

/ LARRAIN DANTZA

20:00 PLAZA ZAHARRA

/ TXAPELKETA
AZEITUNA-HEZUR
JAURTIKETA

20:30 UDALETXE AURREAN

/ MOJITADA ETA FUT-
BOLIN TXAPELKETA


21:15 GAZTETXEA

/ ZEZEN SUZKOA

22:30 HERRIGUNEAN

/ NEOMAK

23:00 PLAZA ZAHARRA



ER- MUA Santi- xauak

07_24

JAI BATZORDEA

/ TXUPINAZOA

17:30 TXOZNAGUNEA

/ KONTZERTUA:
SUSTRAI BERRIAK,
LOS TXIRRIS eta
AGATA LAGATA

20:00 TXOZNAGUNEA

UDALA

/ TXUPINAZOA

19:00 ORBE KARDINALA

/ KALEJIRA
IRULITXA,
NEW TOCADOS eta
BRINCADEIRA
BATUKADA

UDAL TXUPINAZO OSTEAN

/ TECHNO JAIALDIA

22:00- 3:00

/ DANTZALDIA
VULKANO SHOW
ORKESTRAREKIN

23:30 ORBE KARDINALA
MARTXOAREN 8A PLAZA

07_25

JAI BATZORDEA

/ KANTU-POTEOA

13:30 TXOZNAGUNEA

/ ARGAZKIA

14:45 TXOZNAGUNEA

/ BAZKARIA

15:00 TXOZNAGUNEA

/ KONTZERTUAK
LEHEN LERROA,
KENGAN B2B MEYA
ETA BEGIBIDE
ERROMERIA

22:00 TXOZNAGUNEA

UDALA

/ HERRI-KIROLAK

12:30 ORBE KARDINALA

/ KALEJIRAK
LA TUNA BANDO
eta JOSELONTXOS

12:30 KALEETAN ZEHAR

**/ ERRALDOI ETA
BURUHANDIAK**

19:00 KALEETAN ZEHAR

/ TOPA
EUSKARAREKIKO
KONPROMISOAREN
ALDE

20:00

/ ROCK JAIALDIA
SON OF DECAY eta
VELKHANOS

22:00 MARTXOAREN 8A PLAZA

/ KALE IKUSKIZUNA
"EXPRESS"

22:30 SAN PELAIOKO PLAZA

/ DANTZALDIA
ALASKA ON TOUR

23:30 ORBE KARDINALA

07_26

UDALA

/ NAGUSIEI
OMENALDIA

12:00 ORBE KARDINALA

/ KALEJIRAK
GUANAJUATOKO
(MEXIKO) MARIACHI
IMPERIAL

12:30 KALEETAN ZEHAR

USTEKABE
TXARANGA

12:30 KALEETAN ZEHAR

/ ESKUPILOTA
PARTIDAK

18:00 ORBE KARDINALA

/ KALEJIRAK
ALBOKA MUSIKA ES-
KOLAKO TXARANGA

19:00 KALEETAN ZEHAR

ERMUKO
TXARANGAK

19:00 KALEETAN ZEHAR

ROCKALEAN
TALDEA

20:00 KALEETAN ZEHAR

/ LARRAINDANTZA

20:00 ORBE KARDINALA

/ TRANCE MUSIKA
JAIALDIA

22:00- 3:00
MARTXOAREN 8A PLAZA

/ KALE IKUSKIZUNA
"LES TAMBEURS
DE FEU"

22:30 SAN PELAIOKO PLAZA

/ DANTZALDIA
PASARELA
ORKESTRA

23:30 ORBE KARDINALA

07_27

UDALA

/ PAELLA LEHIAKETA

11:00-12:30 ORBE KARDINALA

/ SARDINA
BANAKETA

11:00 MARTXOAREN 8A PLAZA

/ KALEJIRAK
IRULITXA
TXARANGA

12:30 KALEETAN ZEHAR

/ MACJEARA,S
JAZZ BANDA

13:00 eta 19:00

KALEETAN ZEHAR

/ KALE IKUSKIZUNA
"MUTE"

13:00 ORBE KARDINALA

/ ERROMERIAK
LOTXO TALDEA

18:00 eta 20:00

ORBE KARDINALA

ARTISTAS DEL
GREMIO

20:30 KALEETAN ZEHAR

/ TECH HOUSE
MUSIKA JAIALDIA
STAN GARAC,
ASH, MARKOS ETA
ALEXANDER M. DJ

/ SUZIRIAK
VALECEA
piroteknia


23:30 ONGARAIOKO PARKEA

/ KALEJIRA eta AGUR
JAUNAK

ONDOREN, ORBE KARDINALA

/ JAIEN AMAIERA
TRAVELLIN'
BROTHERS
BIG BAND

23:30 ORBE KARDINALA



MEN- DARO Santa- nak

07_24

GAZTE ASANBLADA

/ POTEUAN JOLASAK

13:00

/ GAZTE BAZKARIA

15:00

UDALA

**/ TXUPINAZOA ETA
KATASORGINAREN
JAITSIERA**

18:00

**/ KALEJIRA
BIZI POZA**

ONDOREN

**/ ONGIETORRIA
2025EAN JAIOTAKOEI**

18:30

**/ ELEKTROTARANGA
SKAPAIE**

20:00

**/ KONTZERTUA
XIBEROOTS**

23:30

**/ PINTXADA
DJ TXOLA ETA POTXOLA**

ONDOREN

07_25

/ TXIRRISTA ERRALDOIA

ETA PUZGARRIAK

11:00

/ JOTA TALDEA

13:00

**/ HAURRENTZAKO
BAZKARIA/ JOLASAK**

14:30

**/ HAURREN
DANBORRADA**

18:00

**/ KALEJIRA
BURUHANDI ETA
ERRALDOIAK**

18:00

/ GARAROCK

20:00

/ DANBORRADA

22:00

**/ KONTZERTUA
AKERBELTZ TALDEA**

00:00

**/ PINTXADA
AITANA GRANDES**

02:00

07_26

/ HERRI KIROLAK

18:00

**/ PINTXADA
DJ BULL**

19:00

**/ KATASORGINAREN
IGOERA**

21:00

**/ KONTZERTUA
OILAR BELTZAK**

ONDOREN

UZTAILAK

18, 19, 23, 24,
25 ETA 26

Ondo pasan
SANTANA
jaia!



EL- GOI- BAR

San Bar- tolo- meak

08_23:

SAN BARTOLOME

BEZPERA EGUNA

08_24

SAN BARTOLOME

EGUNA

08_25

TXIKI EGUNA

08_27

JUBILATUEN ETA UMEEN

EGUNA

08_28

GAZTE ETA NERABEEN EGUNA

08_29

BASERRITARREN EGUNA



Aurtengo jaietako kontzertu nagusia **ETS** En Tol Sarmiento taldeak eskainiko du. Haiekin batera, **Sune**, **Gozategi**, **Puro Relajo** eta **Kaparrak** taldeak ere igoko dira oholtzara, jaietako egitarau ofizialaren barruan.

Horrez gain, EME Elgoibarko Musikarien Elkarteko kide diren **Muzak** eta **Alguillo eta Alkimistak** taldeek ere kontzertuak emango dituzte.

“Pena ematen zidan Izadik ateak ixteak; beraz, erreleboa aurkitzeak poz handia eman dit”

GARBIÑE AJURIA • Izadi loradenda



40 urte igaro dira Garbiñe Ajuriak Izadi loradenda ireki zuenetik, eta ordutik Eibarko merkataritzaren eta herritarren bizitzako une berezien lekuko izan da. Erretiroa hartu berri du, eta atzera begira, loregintzan izandako bilakaeraz, bezeroekin eraikitako harremanez eta bere bizitzako etapa berriari buruz hitz egin digu.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Duela lau hamarkada ireki zituen Garbiñe Ajuriak Izadi loradendaren ateak. Ordutik, lore artean egin du lan, bezeroekin harreman estua eraiki eta Eibarko merkataritzaren bilakaera bertatik bertara ezagutu du. Orain, erretiroa hartzeko unea iritsi zaio. Atzera begira, pozik dago egindako bidearekin, nahiz eta aitortu digun ez dela erraza izan norberak sortutako proiektua uztea. Dena den, badu lasaitzeko arrazoirik: Izadik bizirik jarraituko du.

40 urteren ondoren, zer sentipenekin utzi duzu Izadi?

Pozik noa, gustura egindako lanarekin eta egindako bidearekin. Aldi berean, tristura puntu bat ere badut, azkenean norberak sortutako zerbait delako. Ume bat etxetik joaten denean bezala sentitzen da. Baina, oro har, oso gustura noa.

Gogoratzen duzu nola hasi zinen loregintzan?

Kasualitate hutsez izan zen. Gurasoek lokala zuten eta bertan zerbait egiteko asmoa nuen. Aitak ezagutzen zuen loradenda baten jabea, eta berak proposatu zidan bide hori aztertzea. Ideia polita iruditu zitzaidan; hainbat loradendatan ikasten eta

praktikak egiten hasi nintzen, eta ofizioak berehala harrapatu ninduen.

Imajinatzen zenuen orduan 40 urte emango zenituela lanbide berean?

Ezta pentsatu ere. Garai hartan urtebeteko alaba nuen, eta bizimodua ateratzeko aukera bat ikusten nuen hor. Berrogei urte geroago hemen jarraituko nuela? Inondik ere ez.

Zer izan da Izadi loradenda zuretzat?

Lehenik eta behin, nire ogibidea izan da. Baina askoz gehiago ere bai: jende asko ezagutzeko aukera eman dit, harreman ugari sortzeko eta bizitzaren une askoren lekuko izateko aukera. Bezero oso maitatuak izan ditut, eta merkataritzari buruzko ikuspegi handia eman dit lan honek.

Nola aldatu dira Eibar eta bezeroekin duzuen harremana urte hauetan?

Ikaragarri aldatu dira. Ni hasi nintzenean dena konfiantzan oinarritzen zen: gertutasuna zegoen, bezeroek etxerako loreak erosten zituzten astero, eta dena askoz naturalagoa zen. Orain sare sozialek eta irudiak pisu handia dute. Askotan bezeroak argazki batekin etortzen dira eta esaten dute: «Hau nahi dut». Horrek batzuetan pena ematen dit, badirudielako gure lanean konfiantza



Garbiñe Ajuria, Izadi loradendan. IRATIALVAREZ

gutxiago dagoela. Gainera, berehalakotasuna nagusitu da; dena unean bertan nahi da.

Lan egiteko modua ere erabat aldatu da. Lehen lore asko Kataluniatik ekartzen genituen trenez; Zumarragara joan behar izaten genuen jasotzera, eta batzuetan egoera onean iristen ziren, baina beste batzuetan ez. Gaur egun, berriz, ia edozer lor deza-kegu egun batetik bestera.

Loregilearen atzean zer da ikusten ez dena?

Kanpotik askotan esaten digute: "Ze lan polita daukazuen, egun osoa lore artean". Eta bai, egia da lan ederra dela, baina hori da jendeak ikusten duen zatia. Atzean lan fisiko handia dago, buruhauste asko eta antolaketa handia. Gure tresna nagusiak eskuak dira, eta horietan bertan ikusten da eguneroko lanaren arrastoa. Gainera, gaur egun bezeroen exijentzia gero eta handiagoa da, eta askotan ez da ikusten eskaera baten atzean zenbat lan, zenbat prozesu eta zenbat pertsona dauden. Jendeak loreen edertasuna ikusten du, baina ez atzean dagoen lana. Eta bai, loreekin lan egitea zoragarria da, baina ikusten ez den guztia ere bada ofizio honen parte.

Eta zein izan da alderdirik ederrena?

Loreekin eta naturarekin lan egitea. Sormena gara-

tzeko aukera ematen duen ofizioa da, eta etengabe ikasten jarraitzera behartzen zaitu. Hori oso aberasgarria izan da niretzat.

Loradendak beste etapa bati ekin dio. Zer sentitzen da hainbeste urtez zaindu duzun proiektua beste esku batzuetan uztean?

Poza. Izan ere, denda ixteak sekulako pena ematen zidan. Ondo zebilen negozio bat zen, etorkizuna zuena, eta ixtea oso gogorra egingo zitzaidan. Horregatik, erreleboa badagoela eta Izadik aurrera egingo duela ikusteak lasaitasuna eta poz handia ematen dit.

Lasai utzi duzu negozioa orduan?

Bai, oso lasai. Ardura hartu duten Naiara eta Onintza oso langileak, profesionalak eta gogotsuak dira. Badakit esku onetan geratu dela.

Erretiroa iritsi da. Eta orain zer?

Galdera handia da hori. Baina, batez ere, lasai bizitzea espero dut. Lan honek estres handia ekarri dit urte hauetan, bereziki azken aldian, eta orain bakea behar dut. Orain arte egin ezin izan ditudan gauzak egiteko denbora izan nahi dut. Asteburuetan ia ez nuen libratzen, eta hemendik aurrera nire denbora nik antolatu ahal izango dut. Azkenean, askatasuna eta bakea dira gehien espero ditudanak.



Jokin Amorrosta podiumera igo zen distantzia olinpikoko Legutioko Triatloian

E.B. Joan den zapatuan jokatu zen distantzia olinpikoko Legutioko Triatloia, Euskal Herriko egutegiko hitzordu garrantzitsuenetakoa bat. Bertan, Eibar Triatloi Taldeko bi kidek hartu zuten parte: Jokin Amorrostak eta Aitor Fernandezek.

Bi triatletek jardunaldi bikaina osatu zuten, taldearen esanetan "irudi oso txukuna" eskainiz. Emaizarik

nabarmenena Jokin Amorrostarena izan zen. Sailkapen nagusian 22. postuan amaitzeaz gain, hirugarren postua eskuratu zuen 23 urtez azpiko (Sub23) kategorian.

Bestalde, Aitor Fernandezek ere lan sendoa egin zuen, 86. postuan helmugaratuz sailkapen nagusian. Gainera, 15. postua lortu zuen B1 kategorian.

Oyarzabalek Mundialeko finala jokatu du etzi

E.B. Ordezkarri eibartar bat izan-go dugu gizonezkoen futboleko Munduko Txapelketaren finalean, igandean, 21:00etan, New Jerseyko (AEB) Metlife zelaian: Mikel Oyarzabal. Beste behin, futbolari eibartarraren jarduna erabakigarria izan zen Espainiako selekzioarentzat, berak sartu baitzuen taldearen lehen gola eta oso neurketa ona jokatu zuen finalaurrekoan.

Oyarzabalek bost gol sartu ditu bere lehenengo Munduko Txapelketan eta munduko onenen pare dabil zentzu horretan. Hain zuzen ere, izar handiak izango ditu arerio finalean, Argentinaren aurka jokatu baitu finala.

Pantaila erraldoia Untzagan

Udalak pantaila erraldoia jarriko du Untzagan, herritarrek Munduko Futbol Txapelketako finala zuzenean jarraitzeko aukera izan dezaten, "eta Espainiako selekzioa kapitainetako bat den Mikel Oyarzabal eibartarraren ondoan egon daitezen", Udalaren berbetan.

Peñota nagusi Mussara 24h Jarama lasterketan

E.B. Mussara 24h Jarama lasterketa jokatu zen asteburuan, Madrilen. Bertan, taldeka, 24 ordutan bizikletarekin buelta gehien egiten zituen taldea gailentzen zen eta, 244 bueltarekin, Pello eta Txomin Osoro anaiek, Mikel Mujikak eta Alex Unzuetak osatzen zuten taldeak irabazi zuen.

Laukoteak oso maila ona erakutsi zuen eta sei bueltako alde atera zion Jatraining TDB bigarren sailkatuari. Hirugarren Los Chamos izan zen 234 bueltarekin.



Eibar Eskubaloiren batzarra, hilaren 22an

E.B. Eibar Eskubaloi Taldeak Urteko Batzar Nagusia egingo du uztailaren 22an, Portaleko areto nagusian, 18:00etan lehen deialdian eta 18:15ean bigarren. Bertan, aurreko denboraldiko balantzea egin eta hurrengorako aurrekontua zehaztuko dute, besteak beste.

Ohiko Batzarra amaitu ondoren, 19:00etan lehen deialdian eta 19:15ean bigarren, Ezohiko Batzarra egingo dute puntu bakarra aztertzeko: indarrean dauden estatutuen zuzenketa.



Aste honetan itzuli da lanera 2026/27 denboraldian F Ligan jokatu duen SD Eibar

E.B. Asteko lehen bi egunetan mediku azterketak egin ondoren, eguaztenean hasi zuen aurrendenboraldia F Ligan jokatu duen SD Eibar-ek. Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak hiru lan-saio egingo ditu aste honetan eta asteburuan atsedena hartuko du.

Eibar-ek RCD Espanyol-en aurka hasiko du F Ligako 20276/27

denboraldia, Ipuruan, abuztuaren 30ean, eta prestatzeko, honako partidak jokatu ditu: Toulouse FC – SD Eibar (abuztuak 1, zapatua), SD Eibar – Atlético de Madrid B (abuztuak 5, eguaztena), SD Eibar – Madrid CFF (abuztuak 8, zapatua), Real Sociedad - SD Eibar (abuztuak 16, domeka) eta EH Kopa Athletic Club eta Deportivo

Alavesekin (abuztuak 19 eta 20, eguaztena eta eguena).

Aldaketak taldean

Esan bezala, Goikoetxeak jarraituko du entrenatzaile lanetan, eta Jon Ander Alonso eta Andrea Suárez izango ditu laguntzaile, Udane Etxebeste izango da prestatzaile fisikoa eta Xabier Maguregi atezainen entrenatzailea.

Jokalarien artean, ostera, aldaketa nabarmenak egon dira taldean. Batetik, Ane Etxezarreta, Malen Uranga, Amaia Iribarren, Emma Moreno, Eunate Astralaga, Garazi Facilla, Patri Ojeda, Marta López de Guereñu, Laura Camino, Iara Acosta, Opah Clement eta Arene Altonaga taldeetik joan dira; eta hauek izan dira etorri direnak: Simona Botero, Samara Ortiz, Noe Fernández, Nerea Sánchez, Nahia Azpiazu, Thirsa de Mesteer, Aitana Zumarraga, Anna Wellmann eta Ángeles del Álamo.

Mailari eusteko helburuan ekingo dio denboraldiari SD Eibar-ek eta oraindik fitxaketa gehiago egin beharko ditu taldea osatzeko. Horrela, aurrendenboraldian bigarren taldeko jokalaria batzuk arituko dira Goikoetxearen esanetan.

Aurrendenboraldiko lehen partida jokatu du bihar Hypermotion Ligako SD Eibar-ek

E.B. Bihar, zapatua, Deportivo Alaves-en aurka Laguardiako Oscar de Marcos zelaian, 19:00etan, jokatu du SD Eibar-ek. Aste hauetan egindako lanaren fruituak ikusteko balio izango du neurketak, eta baita entrenatzaile eta fitxaketa berriak taldera nola egokitu diren ikusteko ere.

Hurrengo partida hilaren 25ean jokatu du Eibarrek, 19:00etan, Zamudion, Athletic Club-en aurka.

Eibar B martxan

SD Eibar-en gizonezkoen taldea lanera itzuli da aste honetan. Iñigo Perez ermuarrak jarraituko du taldearen gidaritzan eta lau fitxaketa egin dituzte: Carlos Lumbreras, Iker Otadui, Hugo Rastrilla eta Unai Garcés. Gainera, hainbat jokalaria igo dira harrobitik: Marc Marroco, Alex Llorens, Haritz Ortuzar, Jon Andoni Gromaz, Unax Bernal, Miguel Álvarez eta Mario Fuente.



Giro ederra Eskozia La Bravaren 25. urteurrenean

E.B. Egun paregabea pasa zuten zapatuan Eskozia La Brava lagunarteko kideek. Taldearen 25. urteurrena ospatu zuten eta ez ziren bakarrik egon, beste hainbat talderen lagunarteetako kideak lagun izan zituztelako ospakizunetan.

Goizetik gauera arteko egitaraua prestatu zuen Eskozia La Brava eta denetarik egin zuten, musikarekin errematatuz. Orain, SD Eibar taldeak bezala, aurrendenboraldia egin beharko du 2026/27 denboraldiari indartsu ekiteko



Deporreko atletek markak hobetzen jarraitzen dute

E.B. Klub Deportiboko atletismo batzordeko kideek emaitza onak lortu zituzten zapatuan, Donostiko Anoeta miniestadio berrituan jokaturako parte-hartze libreko probetan. Berriki irekitako instalazioetan lehiatzeko aukera izan zuten atleta eibartarrek, eta hainbat kasutan marka pertsonalak hobetzea lortu zuten.

Nabarmenenen artean izan ziren Teresa Arrieta, 100 metro hesietan bere marka pertsonala ondu zuena; Ane Arriola, 100 metroko proban inoizko denborarik onena egin zuena; eta Naroa Aranberri, 800 metroetan bere erregistroa hobetzea lortu zuena. Horiez gain, gainerako atletak ere maila onean aritu ziren, denboraldiko azken txanpan sasoi ona erakutsiz.



DH Ermua bizikleta jaitsiera lasterketaren bigarren edizioa jokatu da asteburuan

E.B. Ermuan Santixauak direla eta, hainbat ekimen egongo dira asteburuan zehar eta kirolak ere izango du tarte egitarauan. Horrela, bihar, downhill probako entrenamenduen aurretik, 'Urkora 69tan ezetz!' igoera egingo da eta, 14:00etatik 18:00etara, aipaturako entrenamenduen txanda izango da. "6-8 jaitsiera egingo dira eta erre-monteak erabiliko dituzte igotzeko", diote antolatzaileek.

Lasterketa nagusia domekan jokatu da. 10:00etan, berotzeko

eta lasterkari bakoitzak zirkuituan aldaketarik egon den ikusteko jaitsierak egingo dira, eta ondoren sailkapen-txanda jokatu da, 1 Formularen egiten den antzera, irteera-ordena zehazteko. Amaitzeko, 12:00etan txanda erabakigarria jokatu da.

Maldan beheara hainbat bizikleta ibiliko direnez, mendizaleak adi ibiltzeko abisua eman dute antolatzaileek. Horrela, egun eta ordu horietan Urkora ez igotzea gomen datzen dute.

Eibar Igerixan-ekoek emaitza bikainak lortu dituzte Euskal Herriko Udako Txapelketan

E.B. Eibarko taldeak maila bikaina erakutsi zuen txapelketan zehar. Nabarmendu beharrekoa izan zen Paula Calvoren jarduna, urrezko domina eskuratu baitzuen junior eta absolutu mailan 100 m librean, 200 m estiloetan eta 50 m bizkar probetan. Horrez gain, junior mailan txapeladun izan zen 50 m tximeletan, eta absolutu mailan brontzezko domina irabazi zuen proba berean.

Jokin Onekak urrea eskuratu zuen junior mailako 400 m estiloetan eta brontzea absolutu mailan; Itsaso Castrillok zilarrezkoa irabazi zuen junior mailako 200 m bizkar proban, eta brontzea 100 m bizkarrean; Elaia Mujikak bi brontzezko domina irabazi zituen junior mailako 200 eta 50 m librean; eta Naroa Osa 3. izan zen junior mailako 100 m bizkar proban



130 ordu baino gehiagoko formazio eta aholkularitza

Izena emateko epea uztailaren 20ra arte irekita



EIBARKO EKINTZAILETZA PROGRAMA



EIBAR
Udala | Ayuntamiento

Debegesa
Debagoieneko Garapen Agentzia



ELGOIBARKO NAZIOARTEKO
XXXIX. FOLKLORE JAIALDIA

2026ko uztailaren 24an, ostirala

22:00etan, MAALAKO PARKEAN

TUSUY BALLETT FOLKLORIKOA
(TXILE)

INETNON GEPPA'GO
(GUAM UHARTEA)

HARITZ E.D.T.
(EUSKAL HERRIA)





Era guztietako Lambretta motorrek bete zuten Untzaga

S.H. Berrogeita hamar parte-hartzailetik gora elkartu zituen Club Lambretta Eibarrek antolatutako XXI. topaketak. Goizean goizetik hasi ziren lehen motorrak Untzagara ailegatzen, eta eguerdiko kalejirarekin hasi aurretik, era guztietako Lambrettak ikusteko aukera ederra egon zen. Herriko kaleetan kalejira egin eta, jarraian, kostarako bidea hartu zuten motorzaleek. Bazkaria eta ondorengo garaikur-banaketa, berri, Arraten, Tiro Pitxon jatetxean egin zituzten.



Bertso-afariarekin amaitu dira aurten Amañako jaiak

S.H. Bertso artean eta giro ederrean agurtu zituzten aurtengo Amañako jaiak aurreko asteburuan, zapatuan SCR Amaña elkarte gastronomikoan egindako bertso-afarian. Andoni Egaña eta Iruñe Basagoiti aritu ziren bertsotan, Mikel Arrillaga eta Enrike Gisasola *Sosola* gai-jartzaileen aginduetara, eta saioa arrakastatsua izan zen, alde guztietatik begiratuta: salgai ipinitako txartel guztiak saldu eta toki guztiak bete ziren, eta bertaratutako guztiak gustora irten ziren, bapo afalduta eta bertso-saio ederraz gozatu eta gero.



Hasi dira Arrateko bertso-afarirako txartelak saltzen

S.H. Urtero bezala, irailaren 7an egingo da Arrateko Bertso Afaria, Tiro Pitxon jatetxean, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Aurreko barixakuan jarri zituzten salgai sarrerak, euskara elkarte bazkideentzat (uztailaren 21era arte bakarrik beraientzat salduko dira sarrerak, ...eta kitto!-n bertan). Prezioan ere izango dute abantaila, 2 euro merkeago (40 eurotan) erosi ahal izango dituzte-eta. Uztailaren 23tik aurrera, berriz, 42 eurotan salduko dira, ohiko salmenta-puntuetan: Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen.

Arrate bezperako afaria 21:00etan hasiko da, eta afaldu ondoren arituko da aurtengo bertsolari laukotea: Andoni Egaña, Maddi Ane Txoperena, Saioa Alkaiza eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzaile lanetan Jon Mikel Mujikak jardungo du.

B2 eta C1 mailetako azterketak prestatzeko ikastaro laburra

S.H. Eibarko Udal Euskaltegiak HABEren B2 eta C1 mailetako azterketa ofizialak prestatzeko 30 orduko ikastaro laburrak antolatu ditu. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, irailaren 3ra arte.

Saioak irailaren 9tik 25era bitartean egingo dituzte, eta bi ordutegi eskainiko dituzte: 09:00etatik 11:00etara, edo 16:00etatik 18:00etara. Ikastaroen helburua HABEren B2 eta C1 mailetako azterketa ofizialak prestatzea da. Informazio gehiago nahi dutenek 943 700 912 edo 688 698 566 telefono zenbakietara deitu dezakete, edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi.





Mercedes Kareaga Bekaren emaitza den liburua aurkeztu du Begoña Etxenagusia

S.H. 2022an kaleratu zen Mercedes Kareaga ikerketa-bekaren emaitza den *Mercedes Kareaga Gisasola (1908-1997)* liburua aurkeztu dute aste honetan, udal-etxean. Begoña Etxenagusia Atutxak egin du liburua, bi urteko ikerketa-lanaren ostean. Bai beka, baita liburuen edizioa ere, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan egin ditu Udalak.

Jon Iraola alkateak, Mertxe Garate Ego Ibarra batzordeko buruak, Unai Belaustegi EHU-ko irakasleak eta Begoña Etxenagusia lanaren egileak hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian. Bertan azaldutakoaren arabera, “Mercedes Kareagaren bizitza eta, bereziki, gizartegintza arloan izandako ekarpena” bildu nahi izan ditu egileak liburuan.

XX. mendeko historia hobeto ulertzeko adibidea

Aurkezpenean esandakoari jarraituta, “Mercedes Kareagaren bizitza XX. mendeko historia hobeto ulertzeko adibide on bat da”. Egileak hainbat ataletan banatu ditu Kareagaren bizitza eta ekarpenak: haurtzaroa, ikasketak, Emakume Abertzale Batza, Gerra Zibila, Frankismoa, Goi Argi elkarte, “adreilu operazioa”, Cayetano Careaga tailerrak...

Etxenagusia Kareagaren bizitza eraiki du, hark utzitako arrasto dokumentalari jarraituz, garaiko egunkari eta idatziak errepasatuz, eta hainbat artixibotan ikertuz. Zentzu horretan, Etxenagusia artixiboen garrantzia azpimarratu zuen ekitaldian, eta bere esker ona adierazi zien Yolanda Ruiz Eibarko Udal Artxiboko arduradunari, baita Unai Belaustegiri ere, ikerketa-lanaren jarraipena egiteagatik. Aurkezpena gerturatu ziren Goi Argi elkarteko emakumeei, tartean Karmen Apellaniz ere eskerrak eman zizkien, eskaintako laguntzarengatik.



Asteburu honetan agurtuko da zine-denboraldia Coliseon

S.H. Asteburu hau igarota, Coliseo Antzokiko zinema-proiektzioen denboraldiari agur esango diote, baina, agurtu baino lehen, asteburu honetako zinema-eskaintzarekin gozatzeko aukera izango da. Lau film hauek proiektatuko dituzte: *La muerte de Robin Hood* (Michael Sarnoski), *Cosas que no olvidar* (Alessandro Aronadio), *La Odisea* (Christopher Nolan) eta *Gurenagi familiaren errezetak* (Tania Vincent, Ricard Cusso). Emanaldien arduradunek jakinarazi dute, beste batzuetan ez bezala, gaur (barixakua) ere eskainiko dituzte emanaldiak (antzokian eta beste bi areto txikietan), 20:00etan. Bestetik, *La Odisea* filmaren iraupen luzea dela eta (ia hiru ordu), zapatuan bi saio baino ez dira egingo (17:00etan eta 19:45ean), eta domekan beste bi saio egingo dira, horietako bat ezohiko ordutegian (16:30ean eta 20:00etan). Ikasurte berriarekin batera, iraileko lehen astean itzuliko da ohiko zinema-eskaintza Coliseora.

Udako ordutegia ezarri dute udal zerbitzu eta instalazioetan

S.H. Urtero bezala, hainbat udal zerbitzutako ordutegiak aldatu dituzte, udako ordutegia indarrean sartu ondoren. Horrela, uztailaren 30era arte, Juan San Martin Udal Liburutegia astelehenetik barixakura zabalduko dute, 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era (asteburuetan itxita egongo da). Bestetik, hilaren amaierara arte, Armagintzaren Museoa martitzenetik barixakura zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara, eta Arrateko Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa, berriz, uztailaren 19an eta 26an zabalduko dute, 11:30etik 13:30era.

ERRAZA

5	3			7				
6				1	9	5		
	9	8					6	
8				6				3
4				8		3		1
7				2				6
	6					2	8	
				4	1	9		5
				8			7	9

SUDOKUA



6	7	1	2	8	9	5	3	4
5	8	9	6	1	4	2	7	3
4	8	4	7	2	5	1	9	6
9	5	8	2	2	3	6	8	7
1	6	1	3	5	8	9	7	4
2	3	6	7	1	9	4	2	8
7	9	3	4	2	6	8	5	1
3	4	1	5	9	7	6	3	8
8	6	7	1	9	5	3	4	2

6	9	5	2	1	8	3	4	7
7	6	3	4	1	8	2	5	9
2	4	8	9	5	7	1	3	6
5	1	9	3	2	6	8	7	4
9	5	1	7	4	3	6	2	8
3	7	4	6	8	2	5	1	9
8	2	9	1	9	5	3	4	7
1	6	7	8	3	4	5	6	2
6	8	2	5	7	1	4	9	3

ZAILA

			2	6		7		1
6	8			7			9	
1	9				4	5		
8	2		1				4	
		4	6		2	9		
	5				3		2	8
		9	3				7	4
	4			5			3	6
7		3		1	8			

LABIRINTOA




Uztailak 17 - Uztailak 23

MARTITZENA 21

AZOKA

10:00 / 20:00 Udako behe-
rapenen azoka. **10:00/12:00**
Euskeraz Primeran! kanpai-
naren mahaia, ...eta kitto!
Euskara Elkartearen esku-
tik. Toribio Etxebarria.



EGUAZTENA 22

AZOKA

10:00 / 20:00 Udako behe-
rapenen azoka. **10:00/12:00**
Euskeraz Primeran! kanpai-
naren mahaia, ...eta kitto!
Euskara Elkartearen esku-
tik. Toribio Etxebarria.

EGUENA 23

AZOKA

10:00 / 20:00 Udako behe-
rapenen azoka. **10:00/12:00**
Euskeraz Primeran! kanpai-
naren mahaia, ...eta kitto!
Euskara Elkartearen esku-
tik. Toribio Etxebarria.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera
joateko saioa, odol-emai-
leentzat. Untzaga jubilatutako
etxea.



ELKARGUNEA

19:00 "Garaiak borroka es-
katzen du!" lelopean Eibar-
ko Ernaik deitutako bilera.
Txaltxa-Zelai.



zarelakogara

Zure pausoak indartzen du euskararen bidea.
Batu zaitez eta egin dezagun Eibar euskaldunagoa.

**EGIN
ZAITEZ
BAZKIDE**

BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatutak: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

*Errenta aitortopenean %30 itzuliko zaizu

...eta kitto!
euskara elkartea

ZINEA COLISEO



“La muerte de Robin Hood”
ABENTURA. DRAMA
2026/AEB/123’
Zuzendaria: Michael Sarnoski
Aktoreak: Hugh Jackman, Jodie Comer, Bill Skarsgård
Erdi Aroa. XIII. mendea

- 1 ARETOA**
- **17an:** 20:00
 - **18an:** 22:30
 - **19an:** 20:00
 - **20an:** 19:30




“La odisea”
FANTASIA. ABENTURAK
2026/Erresuma Batua/172’
Zuzendaria: Christopher Nolan
Aktoreak: Matt Damon, Tom Holland, Anne Hathaway, Robert Pattinson
Antzinako Grezia. Mitologia

- 1 ARETOA**
- **18an:** 17:00
 - **19an:** 17:00
- ANTZOKIA**
- **17an:** 20:00
 - **18an:** 19:45
 - **19an:** 20:00
 - **20an:** 19:30



“Cosas que no olvidaré”
DRAMA
2025/Italia/115’
Zuzendaria: Alessandro Aronadio
Aktoreak: Edoardo Leo, Teresa Saponangelo, Javier Leoni
Benetako gertakarietan oinarritua. Alzheimerra.

- 2 ARETOA**
- **17an:** 20:00
 - **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
 - **19an:** 17:00, 20:00



“Gurenagi familiaren errezetak”
ANIMAZIOA. KOMEDIA. ABENTURAK
2024/Australia/84’
Zuzendaria: Tania Vincent, Ricard Cussó
Animaliak. Familia-zinema

- ANTZOKIA**
- **18an:** 17:00
 - **19an:** 17:00

dbi! DEBABARRENEAN ZEHAR

Aste honetan, Ermuko eta Soraluzeko jaiak izan ditugu hizpide. Bi herrietan grabatu dugu, datozen asteetan ospatuko diren jaien inguruko xehetasunak modu arin eta entretenigarrian kontatzeko.

Herri bakoitzeko tradizio nagusiak, galdu ezin daitezkeen ekitaldiak, jai-giro berezia eta bertakoez gehien maite dituzten ohiturak bildu ditugu, ikusleek jaietara joan aurretik erreferentzia erabilgarria izan dezaten. Modu dinamikoan, herri bakoitzaren nortasuna, jaietako une adierazgarrienak eta bertan aurki daitezkeen giroa erakutsi ditugu.





www.etakitto.eus
zorion-agurak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **AIURI!**
Astelehenian,
hillak 20, 5 urte
betetzen dozuz.
Bitxito bat zara.
Maite zaitugu aita,
Malen eta amak.



Zorionak **MIKEL!**
Astelehen honetan,
hilak 20, 7 urte
beteko dozuz. Egun
zoragarria opa de-
tsugu. Musu haundi
bat Julen eta
familia guztixaren
partez.



Zorionak **GILEN!**
Atzo, hillak 16, 4
urte bete zendua-
zen eta. Aitatxo,
amatxo, Peio eta
famelixa guztixa-
ren partez



Zorionak **NILE.**
etxeko printzesari!
Hilaren 15ian 4 urte
bete dozuz eta!
Patxo erraldoia
famelixa guztixan
partez!



Zorionak **KEPA!**
Domekan 6 urte
bete zenduaz
eta. Elorrixoko eta
Eibarko familixa-
ren partez eskerrik
asko zuk egindako
tarta jatera gonbi-
tzeagaitik.



Zorionak aitxitxa **FERNAN**
(ekainak 2) eta amama **KIKA**
(hilak 22) zeuen urtebetetzie-
tan. Uztailaren 22xan be 37
urte ezkondu zinetela.
Askio maite zaittuegu. Patxo po-
tolo bana etxekuen eta, batez
be, Vega eta Mateoren partez.



Zorionak **JARE** eta **MALEN** (14
urte). Gozatu udaz eta jarraitu
irribarre politx horiekin. Milla
patxo bikote! Maite zaittuztegu!



BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto! aldizkaria Eibarren banatzeko

- **Ostiraletan (6 ordu)**
- **11:00-18:00 bitartean**
- **Urte osoko kontratua**

Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 20 09 18 | banaketa@etakitto.eus

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Garajea alokairuan hartuko nuke. Urkizu-Carmen inguruan. 616181118.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631888449.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
• Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 642829497.
• Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulua du. 642138108.
• -Gizona eskaintzen da zerbitzari lanak egiteko. 642828910.
• Mutila eskaintzen da soldatzaila lanak egiteko. Tituluduna. 614798337.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez edo gauetz. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.
• Emakumea eskaintzen da etxe-ko edozein lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita zerbitzari edota sukaldeko laguntzaile bezala lan egiteko ere. 643833656.
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka, baita asteburuetan ere. 632768653.
• Neska arduratsua eskaintzen da irailetik aurrera umeak zain-

tzeko eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz eta umeekin lan egotea gustuko dut. 699913163.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, baita garbiketa edota etxeko lanetarako ere. Edozein egun eta ordutan. 642143180.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. 641834341.
4.2. Langile bila
• Eibarko taberna batean lan egiteko zerbitzari eta sukaldari euskaldun bila gabiltza. Interesa badaukazu idatzi langile.bila.eibar@gmail.com helbidera.
• Jardunaldi erdiz dendan lan egiteko pertsona baten bila gabiltza. Interesa baduzu, bidali zure CVa helbide honetara: berritoki@gmail.com.
• Itzamna Akademiak ingeleseko irakaslea behar du hurrengo kurtisorako. Irailetik ekainera, jornada erdia, 1500€. Bidali CVa: info@itzamna.eus helbidera.
• Odontologo orokorra bilatzen dugu astean jardunaldi bat edo gehiagotan lan egiteko. Ermuko hortz klinika batean. Lan-giro ona eta ordutegi malgua. Bidali CV niklinika@gmail.com emailera.
• Banatzaileak behar dira ostiraletan ...eta kitto! aldizkaria banatzeko (6 ordu). 11:00-18:00 bitartean, Urte osoko kontratua. Tel. 943200918 / banaketa@etakitto.eus

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
• Mendiko bizikleta elektrikoa salgai. Suspentsio bikoitzarekin eta egoera onean. 1.000 €. 646293311.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.theleecer.com

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



**ulmar
S.L.**
metalizko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak



Tel. 647 902 208
Bideburrieta, 21 - behea

GARBIKETAK



Garbihome

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal
eta komunitateetarako garbiketak
zerbitzuak eskaintzen ditugu

☎ 642 456 472
✉ info@garbihome.com
🌐 garbihome.com

Kiaren SUV gama berria.

Etengabe harritzen gaituen mundu batera egokituak.



Movement that inspires

Hilean

99 €-tik aurrera*

Sarrera: 6.905,85 €

Azkeneko kuota: 11.126,60 €

Egun bakoitza abentura berri bat da: haurrak eskolara eraman, eskapatatxo bat egin edo, besterik gabe, supermerkatuara joan... Eta plana edozein dela ere, Kiaren SUV bat prest dago zuri laguntzeko. Gozatu haien diseinuaz eta teknologiaz, bideaz gozatzeko pentsatuta baitaude.



Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33

gruponaiacar.com

CO2 isurketa konbinatuak WLTP (g/km): 104-177. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-7,8. *Kia Stonic FL 1.0 T-GDI 100 CV Concept lbilgailuarekin trukean egindako finantzaketaren adibidea. PSP: 19.840,19€. Prezioa finantziarioarekin: 18.079,69€. Sarrera: 6.905,85€. Finantzatutako zenbatekoa: 12.110,02€ (ordainketak babesteko aukerako aseguruia barne: 476,01€ eta formalizazio-komisioa % 3,95: 460,17€). 99,00 €-ko 48 kuota eta 11.126,60 €-ko azken kuota. TIN: % 7,95eko UTBa: % 9,50. UTBaren kalkuluan finantzaketaren kostu gisa sartu ez den aseguruia. Interesak, guztira: 3.768,58€. Kredituaren kostua, guztira: 4.228,75€. Zordundutako zenbatekoa, guztira: 15.878,60€. Epekako prezioa guztira: 22.784,45€. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem S.A.U.rekin finantzatuz 2026/07/09tik 2026/07/25era. Kredituaren amortizazio-aseguruia barne hartzen du, honako estaldura hauekin: heriotza, istripu-heriotza eta ezintasun iraunkor absolutua, Cardiff Assurance Vie, Espainiako sukurtsalarekin kontratatua, DGSFPren Erregistroan E-0129 gakoarekin erregistratua, eta Cardiff Assurances Risques Divers, Espainiako sukurtsalarekin kontratatutako langile autonomoen GAP, langabezia eta jarduera-etetearen estaldurak, E-0130 gakoarekin erregistratua DGSFPren Erregistroan, Banco Cetelem, S.A.U. Operador de Banca Seguros Vinculado entitatearen bitartekaritzarekin, zeina Aseguru Bitartekariaren Erregistro Berezian inskribatua baitago OV-0046 gakoarekin. Erantzukizun Zibil Profesionaleko Aseguruia du, eta finantza-gaitasunaren betekizuna betetzen du. Estalduren aplikazioak polizaren baldintza orokorren eta partikularren mende daude. Cetelemek agentzia kontratua sinatu duen aseguru-etxeen kontsulta hemen: www.cetelem.es/seguros

